

1. AZTARNA EKOLOGIKOA

Adierazle taldea

BIZKAIKO ADIERAZLE NAGUSIAK

Definizioa

Bizi-maila zehatz bat duen giza komunitate jakin batek erabiltzen dituen baliabideak eta sortzen dituen hondakinak bereganatzeko beharrezkoa den lurralde-eremu ekologikoki produktiboa (laborantzak, belardiak, basoak edo uretako ekosistema). Adierazle honek biztanleria baten iraunkortasuna ezagutzera ematen du, espazio eta denbora jakin batean.

Unitateak

Hektarea globalak/Biztanle (Hag/Hab) edo (gHa/Hab)

Datuen urte-tartea

2000tik 2012ra

Kalkulu-aldizkakotasuna

Urtekoa

Informazio-iturria

Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Saila

Oharrak

Aztarna ekologikoaren kalkulua premisa honetan oinarritzen da: kontsumo guztiek, materialak nahiz energetikoak, eta hondakinen absortzioak dagokien adierazpena dute lurralde produktiboan, haren beharra baitute produzitzeko edo ezabatzeko.

Aztarna ekologikoaren kontzeptua bioahalmenaren (edo karga-ahalmena) kontzeptuari oso lotuta eta kontrajarria dago; bioahalmena honela definitzen da: "Ekosistemek duten ahalmena material biologiko erabilgarriak sortzeko eta gizakiak sortutako hondakinak xurgatzeko".

Kontuan hartuz planetaren azalera mugatua dela, eskualde bateko aztarna ekologikoak ahalmen biologikoa gaintzen duenean, horrek esan nahi du eskualde horrek eskura duena baino gehiago erabiltzen duela; beraz, gaurko eta etorkizuneko belaunaldiak hipotekatzen ari da. Eta aitzitik, bioahalmena aztarna ekologikoa baino altuagoa bada, baliabide guztien erabilgarritasuna bermatzen da etorkizunari begira.